



**SANTURTZIKO BEGOÑAKO ANDRA MARI EGOITZAKO
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA**

Saioaren izaera: Ezohikoa

Santurtzin, 2019ko maiatzaren 7an, 9:31 direnean, Santurtziko udaletxeko bilera-aretoan Begoñako Andra Mari Egoitzako Artezkaritza Kontseilua batu da. Batzarrera honako hauek bertaratu dira:

KONTSEILUBURUA:

MARTA ALVAREZ RINCON and. (EAJ-PNV)

BOKALAK:

DANEL BRINGAS EGILIOR jn. (EAJ-PNV)

CRISTINA SENARRIAGA ROJO and. (EAJ-PNV)

IVAN LÓPEZ ARENAS jn. (EAJ-PNV)

DENIZE RIBEIRO OLIVER and. (SSPSTZ)

ENDIKA GARCIA SAEZ jn. (BILDU)

PEDRO MIGUEL LUCENA BALDA jn. (PSE-PSOE)

ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN IDAZKARIA:

SUSANA MARTIN REVILLA and.

BESTE KIDE BATZUK:

JOSE MIGUEL PAREDES CISNEROS jn. (SANTURTZIKO UDALEKO BEHIN-BEHINEKO KONTU HARTZAILEA)

MARGA GARCIA DIAZ and. (EGOITZAKO ZUZENDARIA)

MARIAN BENITEZ MARTIN and. (EGOITZAKO ADMINISTRARIA)

Jarraian, Kontseiluburu andreak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du eta Kontseilua eratu da Autonomiadun Erakundearen estatutuetako 15.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Jarraian gai zerrendaren gaiak jorratu dira:

**1.- AURREKO SAIOKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA
(2019/03/26)**

2019/03/26ko saioko akta bozkatu da. Aldeko 6 boto izan dira (4 EAJ-PNV UT eta bana EHBildu eta PSE-PSOE Udal Taldeak) eta abstentzio 1 (SSPSTZ Udal Taldea). Hortaz,



akta onetsi egin da.

SSPSTZ Udal Taldeko ordezkariak abstentzioa agertu du aktari dagokion saioan parte hartu ez zuelako.

2.- AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Obren kontratuaren lizitazioa.
- Harrera- eta atezaintza-zerbitzuaren lizitazioa.
- Aurrekontuen egikaritze-maila.
- Jardueren egitaraua eta ehungarren urtemugaren ospakizuna.

3.- GALDE-ESKEAK

Kontseiluko kideek esandako guztiak esanda, batzarra 9:39an amaitu da. Esandakoaren akta jaso eta idatzi egin dut eta Artezkaritza Kontseiluko buruak oniritzia eman dio.

OE

ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PRESIDENTEA